# 1. CONCURSO DE CARTELES
# AFIXA LEHIAKETA

## PARA JÓVENES SOBRE LOS JUEGOS DE AZAR Y DE DINERO Y LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS




## AUSAZKO ETA DIRUZKO JOKOEN ETA TEKNOLOGIA BERRIEN INGURUAN GAZTEENTZAKOA

Fecha límite de entrega: 5 de diciembre de 2007 • Lanak emateko azken eguna: 2007ko abenduaren 5ean

Consultar bases / Helbide honetan kontsulta daitezke: www.onlinezurekin.org

En la Asociación Asajer Elkartean (General Álava, 25 - 1º dcha. • Alaba Jeneralaren kalean, 25 - 1.esk. • 945 14 04 68)

Organiza
Antolatzazilea:

ASOCIACIÓN ALAVESA DE JUGADORES EN REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Colaboran
Laguntzaileak:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Departamento Municipal de Salud y Consumo
Osasunerako eta Kontsumorako Udal Saila
Área de Salud Pública
Herri-Osasun Arloa

ciudadJOVEN hiriGAZTEA

# KARTEL LEHIAKETA
## "ETA ZUK, ZERTAN JOKATZEN DUZU?"

Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarteak (ASAJER), Osasunerako eta Kontsumorako Udal Saila eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren lankidetzaz, "ETA ZUK, ZERTAN JOKATZEN DUZU?" izenburupean, eta ausazko eta diruzko jokoen eta teknologia berrien inguruan, Gazteentzako I. Kartel-Lehiaketarako deia egiten du.

### 1º.- GAIA

Gure asmoa da gazteek kontatzea, kartel baten bitartez, nola ikusten duten, gazteen aldetik, ausazko eta diruzko jokoak eta teknologia berriak (Internet, eskuko telefonoak, bideo-jokoak, telebista...) erabiltzea.

### 2º.- PARTEHARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Vitoria-Gasteizen bizi diren 12 urtetik 30era bitarteko gazteek.

### 3º.- LANA

a) Hiru adin-tarte ezartzen dira:

a. 12 urtetik 17ra bitarteko gazteak.
b. 18 urtetik 25era bitarteko gazteak.
c. 26 urtetik 30era bitarteko gazteak.

b) Kartelak ez ditu DIN A2 baten dimentsioak gaindituko.

# KARTEL LEHIAKETA
## "ETA ZUK, ZERTAN JOKATZEN DUZU?"

Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarteak (ASAJER), Osasunerako eta Kontsumorako Udal Saila eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren lankidetzaz, "ETA ZUK, ZERTAN JOKATZEN DUZU?" izenburupean, eta ausazko eta diruzko jokoen eta teknologia berrien inguruan, Gazteentzako I. Kartel-Lehiaketarako deia egiten du.

### 1º.- GAIA

Gure asmoa da gazteek kontatzea, kartel baten bitartez, nola ikusten duten, gazteen aldetik, ausazko eta diruzko jokoak eta teknologia berriak (Internet, eskuko telefonoak, bideo-jokoak, telebista...) erabiltzea.

### 2º.- PARTEHARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Vitoria-Gasteizen bizi diren 12 urtetik 30era bitarteko gazteek.

### 3º.- LANA

a) Hiru adin-tarte ezartzen dira:

a. 12 urtetik 17ra bitarteko gazteak.
b. 18 urtetik 25era bitarteko gazteak.
c. 26 urtetik 30era bitarteko gazteak.

b) Kartelak ez ditu DIN A2 baten dimentsioak gaindituko.

c) Kartela egiteko erabiltzen den teknika egilearen/egileen erabakia izango da. Zuri-beltzean zein kolorean egin ahal izango da.

d) Argitaratu gabeko originalak izango dira lanak.

e) Lanak itxita dagoen azal batekin aurkeztuko dira. Azalaren barruan kartelaren egilearen/egileen izen-abizenak, adina, helbidea ea telefonoa sartu beharko dira. Kanpoko aldean, I. KARTEL-LEHIAKETA: "ETA ZUK, ZERTAN JOKATZEN DUZU?" hitzak, eta karteleako hautatu diren izenburua eta lema azalduko dira.

f) Sariak eman gabe geratu ahal izango dira, epaimahaiaren ustez, lanek sariak lortzeko behar den meriturik baldin ez badute.

g) Honako sari hauek emango dira:

- 12 urtetik 17ra bitarteko gazteentzat:
  - 1. saria (350 euroko txartela (musika, liburuak, ikasmaterialak)
  - Accesita 150 euroko txartela (musika, liburuak, ikasmaterialak)
- 18 urtetik 25era bitarteko gazteentzat:
  - 1. saria (350 euro)
  - Accesita (150 euro)
- 26 urtetik 30era bitarteko gazteentzat:
  - 1. saria (400 euro)
  - Accesita (200 euro)

### 4º.- AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea 2007ko azaroaren 19an hasi eta 2007ko abenduaren 5ean bukatuko da. ASAJERen egoitzan (Alaba Jeneralaren kalean 25-1. esk. helbidean), Vitoria-Gasteizen, utzi beharko dira, goizeko 10etatik 12,30etara, eta arratsaldeko 5etatik 7etara.

### 5º.- EPAIMAHAIA

Lehiaketaren epaimahaiak honako partaide hauek izango ditu:

- ASAJER - Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarteko presidentea.
- Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuko ordezkari bat.
- Vitoria-Gasteizko Udalaren Osasun eta Kontsumo Saileko ordezkari bat.
- ERDU-Elkarteentzako eta Boluntarioentzako Agentziako teknikari bat. Vitoria-Gasteiz.

### 6º.- SARIAK EMATEKO EKITALDIA

Epaimahaiak bere erabakia abenduaren 20an jakin araziko du, arratsaldeko 7etan, Beñat Etxepare Antzokian (Iparralde Gizarte Etxean) egingo den ekitaldian.

### 7º.- JABETZA

Lehiaketan aurkezten diren lanak ASAJER - Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkartearen jabetza izango dira. Elkarte horrek eskubide guztiak erreserbatuko ditu berak bultzatutako edozein kanpainatan erabiltzeko, kopiak egiteko eta zabaltzeko, beti ere egilea edo egileak aipatuko direlarik.

**8º.-** Lehiaketa honetan parte hartzeak, Oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea, eta oinarrietan jasota geratzen ez den beste edozein gorabeheraren aurrean epaimahaiak hartu beharko lituzkeen erabakiak onartzea suposatzen du.